



MANIFESTUA

Gaur, 2018ko azaroak 10, arratsaldeko 4etan, Lehen Mundu Gerra amaitu zenetik 100 urte igaro direnean, **zeinak europar zibilizazioa hainbat hamarkadarako suntsitu baitzuen**, historia gogoratu ez ezik, etorkizunari ere heldu diogu.

Bada garaia Europaren promesa gauzatzeko eta Europaren batasun proiektuaren sorrerako ideia gogoratzeko. Une honetan europar kontinentean dauden pertsona guztiak Europar Errepublikako herritarrak direla aldarrikatzen dugu.

Giza eskubideen adierazpen unibertsalaren ondare komunaren erantzukizuna geure gain hartu, eta adierazpena kontinente honetan gauzatu dugula agintzen dugu.

Badakigu Europaren aberastasuna beste kontinente batzuen esplotazioan eta beste kultura batzuen zapalkuntzan oinarritu dela mendetan zehar. Hori dela-eta, gure lurraldea partekatuko dugu beren lurretatik kanporatu genituenekin.

Europarra izan nahi duen edonor da europarra. Europar Errepublika lehen urratsa da demokrazia globalerako bidean.

Nazio-estatuak Europak porrot egin du.

Europaren batasun proiektuaren ideiak traizioa egin diote.

Merkatu bakarra eta euroa justizia sozialaren aurkakoa den agenda neoliberal baten harrapakin erraza izan ziren.

Hori dela-eta, europar erakundeek boterea geureganatu behar dugu merkatu komun eta diru komun sortzeko

Europako demokrazia komun baten barruan.

Zeren Europaren funtsa gizabanakoak elkartzeko da, ez estatuak integratzeko.

Herritarren subiranotasunak hartzen du, honenbestez, estatuaren subiranotasunaren lekua. Europar Errepublika sortzen dugu berdintasun politiko unibertsalaren printzipioan oinarrituta, nazionalitatea eta jatorria gorabehera. Hiriak eta eskualdeak dira Europar Errepublikaren elementu eratzailak. Europaren kultura-aniztasuna batasun politiko baten barruan garatzeko garaia da.

Europako Kontseilua deuseztatu dugu. Europar parlamentuak botere legegilea du. Gobernu bat aukeratu du, europar herritar guztien ongizatea lortzeko betebeharra izango duena.

Gora Europar Errepublika!

Ulrike Guérot, Robert Menasse eta hainbat herritar

Milo Rau-ren babesarekin

Itzultzailea: Eneko Aizpurua